

# XEDAPEN OROKORRAK

## HERRIZAINGO SAILA

### 6110

*AGINDUA, 2011ko abenduaren 21ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, Ertzaintzaren egitura aldatzeko dena.*

Agindu honen bidez, Ertzaintzaren egitura organikoa onartzen duen Herrizaingoko sailburuaren 2011ko ekainaren 17ko Agindua (2011ko ekainaren 20ko EHAA, 16. zenbakia) aldatzen da, Ertzaintzak ematen dituen zerbitzu guztiak hobetzeko asmoz. Aldaketak honakoak izango dira:

Ikuskaritza eta Administrazio Alorreko Zerbitzu Unitateak Euskal Herriko Polizia Ikastegiko barne- eta polizia-araudiko arauak betetzen direla zaintzeko funtzioa bere gain hartzen du, orain arte Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorrak esleituta zuena. Halaber, Segurtasun Pribatuko Unitateak bere gain hartzen du Herritarren Segurtasunari buruzko Lege Organikoaren 12. artikuluan jasotako jarduerak, herritarren segurtasunerako nabarmenak direnak, gainbegiratzeko funtzioa; horretarako, kontrolatzeko eta ikuskatzeko administrazio-eginkizunak garatuko ditu.

Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorrak Helikopteroen Unitatearen ordez Erreskate eta Laguntza Taktiko Polizialerako Unitatea izango du. Unitate horrek bere gain hartzen du istripuetan, hondamendietan eta herri-lazeria kasuetan esku-hartzea, orain arte Brigada Mugikorraren eginkizuna izan dena.

Aurrekoaren ondorioz, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 107.2 artikuluan aurreikusitako eskumenaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Ertzaintzaren egitura onartzen duen Aginduaren 1. eranskinaren II.3 «Zerbitzu unitatea» atala aldatu egin da eta aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

«Kabineteko eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritzari haren zuzendaritza-eginkizunen ohiko kudeaketan zuzeneko laguntza emateko ardura duen unitatea da. Halaber, polizia-jardueraren kudeaketarako datuak lantzeko ardura izango du eta, ildo horretatik, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko beharrezko antolamendu-neurriak hartuko ditu haien aldaketa, galera, prozesaketa edo baimenik gabeko atzipena eragozteko.

Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan eta Segurtasun Pribatuari buruzko uztailaren 30eko 23/1992 Legean aurreikusitako zehapen-erregimenaren gaineko espedienteak izapidetuko ditu.

Bideokamerak baimendu eta kontrolatzeko zereginetan Segurtasun Sailburuordetzarekin elkarlanean arituko da. Bestetik, honako ardura hauek izango ditu: txartel profesionala egitea eta kontrolatzea, armak eta behar den dokumentazioa eman eta kentzearekin loturiko izapideak egitea, matrikula erreserbatuen kudeaketa eta barne-kontrolerako segurtasun-mekanismoak ezartzea.

Ertzaintzako langileak izan gabe poliziaren bulego eta eraikinetara ohikotasunez sartzen diren pertsonen dokumentazioa ematea eta kontrolatzea kudeatuko du.

Terrorismoaren biktima diren Ertzaintzako kideei esker ona adierazi eta omenaldia egiteko ekitaldi ofizial eta protokolozkoetan lankidetzan arituko da, baita Musika Bandaren kudeaketan ere. Hori guztia Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzari esleitutako eskumenak alde batera utzi gabe.

Polizia-kidego eta –administrazioekiko harreman operatiboak bideratuko ditu, baita polizia-koordinaziorako prozesuen jarraipena ere.

Azkenik, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak dituen barne- eta polizia-araubideko arauak betetzen direla zainduko du».

Bigarren artikulua.– Ertzaintzaren egitura onartzen duen Aginduaren 1 gehigarriko II.6 «Segurtasun Pribatuko Unitatea» atalari azken paragrafo bat gaineratu zaio, hurrengo idazketarekin:

«Herritarren Segurtasunari buruzko Lege Organikoaren 12. artikuluan jasotako jarduerak, herritarren segurtasunerako nabarmenak direnak, gainbegiratuko ditu; horretarako, kontrolatzeko eta ikuskatzeko administrazio-eginkizunak garatuko ditu».

Hirugarren artikulua.– Ertzaintzaren egitura onartzen duen Aginduaren 1 gehigarriko III.1 «Herritarren Segurtasuna» atalaren 2 «Brigada Mugikorraren Unitatea» zenbakiaren lehenengo paragrafoa aldatu egin da eta aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

«Bere eginkizun espezifikoa da arrisku larriko egoeretan ordena publikoa prebenitu, mantendu eta, hala badagokio, berrezartzea».

Laugarren artikulua.– Ertzaintzaren egitura onartzen duen Aginduaren 1 gehigarriko III.2 «Babeserako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorra» atalaren 1 «Helikopteroen Unitatea» zenbakia aldatu egin da eta aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

«1.– Erreskate eta Laguntza Taktiko Polizialerako Unitatea.

Bere eginkizun espezifikoa da istripuak, hondamendia edo herri-lazeria daudenean esku hartzea.

Halaber, Ertzaintzaren alorretako unitateei edo zerbitzuei aireko laguntza eskaintzea prebentzio, ikerketa edo esku-hartze zereginetan.

Era berean, larrialdietako arreta-zerbitzuei laguntza emateko eginkizunak beteko ditu.»

Bosgarren artikulua.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Errekurtsoak.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Herrizaingoko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, bi hilabeteko epean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Bi kasuetan errekurtsioak jartzeko epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 21a.

Herrizaingoko sailburua,  
RODOLFO ARES TABOADA.